HIK HASI UDAKO TOP

# «Euskal Her
# gutxiago ag

- Irakasle Eskolako hiru ir
- Euskal Herria oso modu

**«Euskal testuliburugintza XXI. mendearen atarian» izenburupean, Begoña Bilbaok, Gurutze Ezkurdiak eta Karmele Perezek atzo Donostian eman zuten hitzaldiak hasi zituen gaurtik eta osteguna bitartean izango diren Hik Hasiko topaketak. Euskal Herriak herri gisa hezkuntzan zein leku eskasa duen azaleratu du ikerketak.**



Karm

Idoia AROZENA

**DONOSTIA**

Irakasle Eskolako irakasleak dira Begoña Bilbao, Karmele Perez eta Gurutze Ezkurdia, eta hamar urteko ahalegin akademikoa eskaini diote lan horri, hain zuzen, Euskal Herriko ikastetxeetan –hiru curriculum ofizialetan, alegia– erabili izan diren eta erabiltzen diren testuliburuen azterketari. 10-11 urte bitarteko haurrentzako 80 testuliburu arakatu dituzte, nahiz eta eskuartean askozaz gehiago izan dituzten, 13.310 orri irakurri eta 22.228 ikono neurtu, lekutu eta deskribatu.

Kezka batek bultzatu zituen: unibertsitatera joaten diren ikasleek Euskal Herriari buruz duten ikuspegia desegokia eta partziala zela ohartu ziren. Beraz, eskolan zein eduki lantzen ziren ikertzea erabaki zuten «antzina gizartearen izena eta izana ahoz irakasten zelako, eta gaur egun, aldiz, hezkuntzaren bitartez. Eta jakin nahi genuen zer errepikatzen den eta zer ez. Hain zuzen, ikerketaren xedea horretan dago», azaldu zuen Gurutze Ezkurdiak.

Euskal Herria gai moduan lehen aldiz 10-11 urte bitarteko haurrek aztertzen dutenez, horregatik aukeratu dute adin ho-

## «Garrantzi gutxi

I. A.

**DONOSTIA**

Ikerketa lan honek bestelakorik erakusteko ere balio izan dio ikerlari hirukote horri: Euskal Herrian, oro har, zein garrantzi gutxi ematen zaion testuliburuari. «Horrekin ikaratuta gelditu gara –zioen Karmele Perezek–. Libu-

ru gehienal
gordeta in
dago horret
tzen den ind
«Lanean
nean frog
Frantzian o
tzitsua dela
ru ikerketa
ra d
instituzio c
go–; Alem
guztiz oina
eta horret